

Beñat Arregi (1973-2004)

Barne begirada

Egia esan behar badut, Eduardo Arreseygor-ek orain dela urte batzuk Beñat Arregi (1973-2004) erakusketa egiteko paroposatu zigunean, ez nuen oso argi ikusten: beste persona baten lanak hartu, kasu honetan gure artean ez dagoena eta erakusketa bat egitea, zentzu gutxi zuela iruditzen zitzaidan hasieran. Agian nere burua babesteko erreflexu bat izan zitekeen, gertera samin hura ez gogoratzeko nahiaz bultzatuta, edota ein batean, bizitzarekiko perpektiba aldatu zidan ausentzia hori onartu edo aurre egiteari nahi ez izatea. Onartu beharra daukat ordea, hausnarketarako aukera eman zidala eta berak utzitako ondarea begiratzera bultzatu ninduela.

Lehenengo eginbeharra, argazki artxiboa topatzea eta bere edukia aztertzea izan zen. Argazki artxiboa batetik ezaguna dut eta bestetik ezezaguna. Milaka argazkiak berrantolatzen eta berriskusten hasi nintzen, eta espazio publikoetan esku-hartzeak egiteko dudak irrikak lagunduta, espazioa eta denbora uztartzen dituen lana bururatu zitzaidan; Andoingo leku ezberdinetan hartutako argazkiak tamaina handian papereratzea eta jatorrian egin ziren lekuetan jartzea. .

2014ean, Eduardok Argazkialdiaa'15 Irizar argazki jaialdiaren barne erakusketa egiteko aukera proposatu zuenean, espazio publikoen esku-hartzearen ideia berreskuratu nuen eta jaialdiaren antolatzaileekin hitzegin ondoren, erakusketarekin batera egitea adostu genuen. Honen ondoren, erakusketa osatu zezaketen lan fisikoak bilatzen eta katalogatzen hasi ginen. Katalogatze eta hautaketan zehar, lanen aberastasuna ikusten hasi nintzen eta orduan ohartu nintzen erakusketa egitearen zentzuaz. Prozesu honek artista ezagutzera eramanez ninduen, anai zaharra eta lagun figuratik haratago. Beñaten lanetan ikertzeko joera argia da, bere irrikak eta hausnarketak azaltzeko argazkilaritzarekin esperimendatzera eta honi beste baliabideak gehitzera darama. Argazkilari naizen ikuspuntutik, argazki bat papereratzea baino manipulazio gehiago ez duen irudirik ez topatzeak harritzen nau. Irudiak formalki hain era berezian azaltzeak, eduki kontzeptual handiarekin eta lanak aurkezteko modu pertsonal hori liluratu egiten nau.

Eduardok lanen katalogatze eta kontserbazio laborearekiko azaldu zuen irrikak, familia eta lagunaren informazioa eta materiala biltzeko garaian emandako baldintzagabeko laguntzak eta Argazkialdiaa'15 Irizar jaialdiaren antolatzaileek erakusteko aukera eman izanak, barne begirada aberasgarria hau posible egin dute.

Eskerrak denori

Eskerrak Beñat

Gortxot Arregi, 2015eko maiatza